



ISTRIPUEN ETA EROSKETEN LAPURRETEN EDOTA INDARREZKO EBASGOEN DOAKO ASEGURU-POLIZAREN BALDINTZEI BURUZKO LABURPENA

BILBAO BIZKAIA KUTXAK Caja de Seguros Reunidos, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. "CASER" aseguru-etxearekin ondore horietarako kontratatu dituen 227.330 eta 15.455 zehbakidun polizen baldintza orokor eta partikularrekin bat egindakoa.

ISTRIPU-ASEGURUA

Aseguruaren xedea

CASERek behean deskribatzen diren indemnizazioen ordainketa bermatzen du, aseguratutako kolektiboak izan lezakeen istripuren bat gertatuta, honako ondorioetako baten bat suertatuz gero:

- Heriotza.
- Ezgaitasun iraunkorra.

Aseguratutako Kolektiboa

A) **BBK Mastercard** txartelaz ordaindutako garraio bide publiko batean doazen eta **BBK Mastercard** txartelaren titular direnak, horien ezkontideak, 23 urtetik bererako seme-alabak, eta beste bost pertsona arte.

Enpresa-txartelei dagokienez, berariaz adierazten da bidaia Enpresen **BBK Mastercard** txartel batez ordaindu duen eta txartel horren edo Enpresa beraren beste **BBK Mastercard** txartel baten titularrak den pertsona fisiko orok izango duela aseguru-izaera.

A1) Alokutatutako ibilgailu batean gidari edo bidaiari doazen eta **BBK Mastercard** txartelaren titular direnak, betiere alokairuaren zenbatekoa bere **BBK Mastercard** txartelaz ordaindu badute.

B) **BBK Mastercard** txartelaren titularrak, euren lanbidez zereginetan dihardutela eta bizitza pribatuan.

Bermeak eta kapitalak

- Aseguratutako kolektiboari buruzko A) atalean aipatutako Aseguruetzat:

• **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO (150.253)**, heriotza edo erabateko ezgaitasun iraunkorra jazoz gero.

Zendutakoa 14 urtetik beherako edo 70 urtetik gorakoa izanez gero, indemnizazioa, gehienez, **SEI MILA ETA HAMAR EUROKOA (6.010)** izango da, ehorketa-gastuak estaltzeko.

• **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO (150.253)** bi eskuak edo bi oinak, bi begien ikusmena edo esku bat eta oin bat galduz gero.

• **HIRUROGEITA HAMABOST MILA EHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO (75.127)**, esku bat edo oin bat edo begi baten ikusmen osoa galduz gero.

• **SEI MILA ETA HAMAR EURO (6.010)**, gehienez, garraio bidearen bahiketa gertatuz gero, gastu justifikagarriak estaltzeko.

- Aseguratutako kolektiboaren A1) atalean aipatutako **Aseguruetzat**, A) ataleko aseguruetzat bermatutako kapitalen %50.

- Aseguratutako kolektiboaren B) atalean aipatutako **Aseguruetzat**:

• Istripua gertatu aurreko 12 hiletan edo polizaren ondore-egunetik, geroagokoa bada, hurrengo 12etan, txartelaz ordaindutako erosketen ondoriozko zordunak bolumenaren besteko Kapitala, ezbehar bakoitzeko gehienezko muga **HAMABI MILA ETA HOGEI EUROKOA (12.020)** delarik, **heriotza edo erabateko ezgaitasun iraunkorra** jazoz gero.

• Heriotzagatiko Kapitalaren bestekoa, bi eskuak edo bi oinak, bi begien ikusmen osoa, edo esku bat eta oin bat galduz gero.

• Heriotzagatiko Kapitalaren %50, esku bat edo oin bat, edo begi baten ikusmen osoa galduz gero.

• **BBK Mastercard** txartelaren titularrak zenduz gero txartelaren ordaintzeko dagoen saldoaren besteko **kapitala**, ezbehar bakoitzeko gehienezko **SEI MILA ETA HAMAR EUROKOA (6.010)** delarik.

Adin-muga

Polizaren estalduratik at daude 14 urtetik beherakoak eta 70 urtetik gorakoak. Hala ere, gehienez, **SEI MILA ETA HAMAR EURO (6.010)** bermatuko zaizkie, ehorketa-gastuak estaltzeko.

Salbuespenak

Polizaren Baldintza Orokorretako 3. artikuluan eta Baldintza Partikularretako 3.ean jaso dira. Istripu berak ez du Heriotzagatiko eta Ezgaitasun Iraunkorragatiko indemnizazio biak batera kobartzeko eskubiderik ematen.

Txartelaz ordaindutako bidaiei buruzko polizaren estaldura lortzeko, aseguratuek garraio-egiaztagiriaren identifikatutako egon beharko dute, eramailearentzako tituluek ez dute-eta baliorik izango. Titulu horiek bidaia nagusi baten garraio osagarrien kasuan balio izango dute.

Onuradunak

Aseguratuak berriaz izendatu ezean, honakoak izango dira onuradunak, lehentasun-ordena hertsian: 1.- Aseguratuak; 2.- Legez banandurik ez dagoen Ezkontidea; 3.- Aseguratuaren Seme-alabak; 4.- Aseguratuaren legezko jaraunseak.

Ezbeharrak gertatzean, Aseguratuak **BILBAO BIZKAIA KUTXA**ri zenbatekoren bat zor badio, berori izango da lehenengo onuraduna, zorraren zenbatekoaren muntarekin bat.

Gehienezko indemnitazioa

BBK Mastercard txartelaren jaulkipen bikoiztuak ez dakar berme eta kapitalei buruzko atalean zehaztutakoak baino kapital handiagoak ordaindu beharrik. Garraibide publikoko bidaiak partzialki ordaindu bada txartelaz, indemnitazioa bidaiaren zenbateko osotik txartelaz ordaindu den zenbatekoaren proportzioan kalkulatu da.

BIDAIA LAGUNTZEKO BERMEA

Aseguratuak

BBK Mastercard txartelaz ordaindutako garraibide publiko batean doazen eta **BBK Mastercard** txartelaren titular direnak, horien ezkontideak, 23 urtetik beherako seme-alabak, eta beste bost pertsona arte. Enpresa-txartelei dagokienez, berriaz adierazten da bidaiak Enpresen **BBK Mastercard** txartel batez ordaindu duen eta txartel horren edo Enpresa beraren beste **BBK Mastercard** txartel baten titularrak den pertsona fisiko orok izango duela aseguru-izaera.

Estaldurak

Berme honek Espainian, Aseguratuaren ohiko bizilekutik 30 kilometroko erradiotik kanpora, eta munduaren gainerakoan du balioa, eta honakoa hartzen du: **Txartelaz ordaindutako bidaiak zehar gertatutako istripu edo gaixotasunagatikko laguntza.**

- Aberriaritze sanitarioa.
- Gainerako aseguratuen garraioa.
- Inmobilitazioa hotel batean. Medikuaren aginduz, gehienez, 60 euro egunean eta 10 eguneko epean.
- Hildako aseguratuen aberriaritzea.

e) Atzerriko gastu medikoak, kirurgikoak, farmazeutikoak edo ospitaleratzeagatikoak, 4.508 euroko gehienezko mugaz. Odontologi gastuetarako gehienezkoak 120 eurokoa da.

Txartelaz ordaindutako bidaiak zehar ekipajeak izandako kalteak.

f) Ekipajearen lapurreta eta kalteak. Gehienez 601 euroko indemnitazioa bermatuko da lapurreta, sute edo ekipaje osoaren nahiz zati baten galera gertatuz gero.

g) Ekipajea emateko berandutza. Erabilera pertsonalerako beharrezko gaien erosketa-gastuak ordainduko dira, 150 euroko gehienezkoaz. Ez da prestazio horretarako eskubiderik egongo, ekipajea emateko berandutza Aseguratuaren ohiko bizilekua dagoen herrian jazotzen bada.

Salbuespenak

Baldintza Bereziak 3. artikuluan jaso dira.

Berme honen estaldura emateko sistema.

UNACSA-RACE-k antolatuta eta atendituko du. Aseguratuak bertara jo beharko dute zuzenean telefonoz:

902 100 728 (Espainiatik)
34 91 594 96 74 (atzeritik)

EROSKETEN LAPURRETA EDOTA INDARREZKO EBASGOEN ASEGURUA

(Adineko **BBK Mastercard** txartelentzat soilik).

Espainian **Adineko BBK Mastercard** txartelaz erositako gai eta objektuak erosketa-egunetik **HIRU HILABETEZ** egongo dira lapurreten edota indarrezko ebasgoen kontra estalita.

Ezbehar bakoitzeko gehienezko indemnitazioa **HIRUREHUN ETA BAT EUROKOA (301)** da.

Laburpen honek informazio-ondore hutsa du eta, edozein gatazka edo auzitarako, Polizaren Baldintza Orokor eta Partikularretan xedatutakoa hartuko da manuzkotzat. Baldintzen testua **BILBAO BIZKAIA KUTXA**ren egoitza nagusian dago, Aseguratuaren eskuetan.

Laburpen honek aurreko guztiak ordeztzen ditu eta **BILBAO BIZKAIA KUTXA**ren eta **Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. "CASER"** aseguru-etxearen arteko kontratuak dirauen artean egongo da indarrean. Kutxarentzat hautazkoak dira polizaren geroagoko berriztapenak, horretan Aseguru Hartzaile diharduelarik, Aseguru Etxeari dagozkion belegeharrak, ez zuzenean, ez subsidiarioki, bere gain hartu gabe.